

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2026ko errolda jendaurrean jartzea eta kobratzeko aldia irekitzea

Egin da trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2026ko errolda, eta jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, interesa dutenek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsiko da.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea:

- a) Borondatzeko epea: 2026ko martxoaren 1etik maiatzaren 1era.
- b) Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza entitateetan kargatuko dira, 2026ko martxoaren 10ean.
- c) Helbideratu gabeko ordainagiriak zerga egoitzetara bidaliko dira eta Kutxabanken bulegoetan ordainduko dira, ordainketa pasabide bidez, udaleko web orria erabilita: www.erriberabeitia.eus; edo udaletxean bertan txartel bidez.

Jakinarazten da ezen, borondatzeko aldian sarrera egitek o epea amaitu eta ordaindu ez bada, zorrak premiamendu bidez eskatuko direla, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua Orokorrak 28. artikuluan eta Zerga Bilketako Erregelamendu Orokorra onesten duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuak 70. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera, sortzen diren errekargu eta berandutze interesekin.

Ribabellosa, 2026ko otsailaren 19a

Alkatea

M. CARMEN ZAMORANO RUBIO